

LAJA, INTERWER

Mugikorra gaur egun ezinbesteko gailua da denontzat, horregatik gure startinnovako taldeak, LAJAK, honen erabileran jazotzen diren arazoak konpontzeko asmoz "Interwer" izeneko gailua asmatu dugu.

Taldean lau ekintzaile gara: Aitor Jauregi, Aitor Txintxurreta, Joseba Madina eta Leire Agirre.

Gure produktua bi ezaugarri nagusiko gailua da. Alde batetik eguzki-plaken bidez bateria emango dio zure mugikorrari, nahi duzun tokian eta egunez nahi duzun unean; bestetik, interneta emango dizu nonahi. Kable batez gailua eta mugikorra konektatu, eta bat batean zure mugikorra kargatzen egongo da eta interneten ibiltzeko aukera izango duzu.

Izena hortik datorkio gailuari, internet eta power (energia ingelesez) hitzen arteko nahasketa da. Hau da gailuaren eta enpresaren logoa:



Uhinek interneta errepresentatzen dute, tximistak ,ordea, energia.

Lau taldekideok oso abilezia ezberdinak ditugu, baina bata bestearen osagarri gara. Hala ere, proiektua aurrera eramateko hainbat enpresa eta pertsonen laguntza izango dugu, ingeniari eta baita enpresa handiagoekin ere lan egingo dugulako.

Gure produktua bezalakorik ez dago merkatuan. Eta puntako prestazioa du. 60€ balioko ditu guztira. Gainera, 6 hilabetez iraungo dizun garantia izateko aukera dago 20 € gehiagotatik.

Produktua hasiera batean Donostian salduko da. Baina beranduago multinazional handietan ikusiko dugu ziur.

Lana Zumarragako industrialdeko lokal batean egingo dugu, sortzen inkubategia ain zuzen. Uggasak (Urola Garaiko Garapen Agentziak) eskaintzen digu lokala edukitzeko zerbitzu hau. Bertan diruaren kudeaketa, proiektuaren antolamendua eta produktua merkatura ateratzeko eman beharreko pausoez prestatzeaz arduratuko gara.

Gurekin harremanetan jartzeko LAJA@gmail.es posta izango da bidea. Bertatik publizitatea ere egingo dugu, eta baita sare sozialetatik ere.

Inbertsioa gure poltsikotik aterako dugu hasieran behintzat, beranduago produktuak arrakasta izatea espero dugu eta dirua berreskuratzen joango gara.

Hau guztia xehetasunez azalduta dago gainerako lanketan.